

SEGMENTAZIOA

Xede-publikoa

Gure proiektuaren xede-publikoa instituzioak, elkarteak eta aisialdiarekin lotutako enpresak dira, guztiak jai eta aisialdi giroko segurtasuna hobetzeko interesa duten eragileak.

Lehenik eta behin, udalak gure bazkide estrategiko nagusiak dira. Herriko jaiak urtero antolatzen dituzten erakunde publikoak dira, segurtasun eta prebentzio neurrien ezarpena sustatzeko gaitasuna dute. Horregatik, gure asmoa da udal mailako lankidetzak ezartzea, edalontziak jai herrikoietan erabiltzen hasteko eta herritarrei esperientzia seguruagoa eskaintzeko.

Elkarte kultural eta herrikoiak ere ezinbestekoak dira gure helburua lortzeko. Haiek dira herri askotan jaiak antolatzen dituztenak, eta komunitatearen parte hartzea bultzatzen dute. Gure produktuak lagungarriak izan daitezke haientzat, jaietan segurtasuna bermatzeko eta prebentzio mezuak zabaltzeko.

Bestalde, tabernak eta diskotekak aisialdiaren erdigune dira, bereziki gazteentzako. Gune hauek alkohola eta edariaren munduan daude. Kezka handiarekin ikusten dugu edalontzietan sustantziak sartzea eta honekin amaitzea. Horregatik, gure produktuaren erabilera ezinbestekoa da prebentziorako eta bezeroen konfiantza handitzeko.

Azkenik, musika festibalak gure proiektuaren funtsezko zatia dira. Ekitaldi hauek jende asko erakartzen dute, eta horrek aukera paregabea ematen digu gure edalontziak ezagutarazteko. Festibaletan gure produktua erabiltzeak ikusgarritasun handia emango lioke markari, eta aldi berean, segurtasunaren eta prebentzioaren aldeko kanpainia egiteko oso erabilgarria izango litzateke. Horrela, gazteei mezu argia helaraziko diegu: jaia eta segurtasuna bateragarriak izan daitezke.

Hauek dira gure xede publikoek euki behar dituzten ezaugarri orokorrak:

- Jai edo aisialdi giroan aritzen diren entitate eta eragileak.
- Gazte publiko zabala erakartzen duten ekimenak eta espazioak.
- Kontzertu, festibal eta jai gune handiak.
- Segurtasunaren eta prebentzioaren aldeko interes soziala duten erakundeak.

Gure helburua da eragile horiekin elkarlanean aritzea eta sare sendo bat sortzea, gure edalontzi adimenduna pixkanaka jai eta aisialdi giroan erabiltzen hasteko. Horrela, segurtasuna handitu, jendea sentsibilizatu eta denon artean ingurune seguruagoa sortu nahi dugu.